

Salmentek Euskal AEko Merkatu-zerbitzuen sektorean % 15,6 egin dute gora, 2022ko bigarren hiruhilekoan


Ostalaritza eta Garraioa eta biltegiatzea dira hazkundearen buru (% 40,3 eta % 21,8, hurrenez hurren)

Euskadiko AEko *Merkatuko* beste zerbitzu batzuk sektorean salmentek % 15,6 egin dute gora 2022ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, prezio finkoetan eta egutegiko ondorioak alde batera utzi ondoren, Eustaten datuen arabera. Sektore horretan, Ostalaritza, Garraioa eta biltegiatzea, Informazioa eta komunikazioak eta Enpresentzako zerbitzu-jarduerak sektoreek eskainitako zerbitzuak kontabilizatzen dira.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, prezio finkoetan eta urtaroko ondorioak alde batera utzi ondoren, salmentek % 4,7 egin dute gora, 2022ko bigarren hiruhilekoan.

Zerbitzuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektorean, benetako salmenten urte arteko berreskurapena (prezio finkoetan) orokortua izan da urteko bigarren hiruhilekoan, *Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak* sektorean izan ezik, % 3,6 egin batitute behera. Salmentek gora egin dute, 2021eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, honako sektore hauetan: *Ostalaritza* (% 40,3), *Garraioa eta biltegiatzea* (% 21,8), *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak* (% 13,6) eta, azkenik, *Informazioa eta komunikazioak* (% 7,6).

2022ko lehen hiruhilekoari dagokionez, aurrerapena aurreikusten da, era berean, salmentetan, sektore guztietan, *Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak* sektorean izan ezik, % 0,6 egin batitute behera. Hala, *Garraioa eta biltegiatzea* sektorean salmentek % 7,2 egin dute gora 2022ko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoaren aldean; *Ostalaritzan* % 6,6 egin dute gora, *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak* sektorean % 3,3 eta *Informazioa eta komunikazioak* sektorean % 2,1.

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Merkatuko beste zerbitzuak. Behin-behineko datuak. 2022/II

	Prezio finkoak		
	Indizea	t / t-4	At / A(t-4)
INDIZE OROKORRA	15,6	4,7	14,2
Garraioa eta biltegiatzea	21,8	7,2	18,6
Ostalaritza	40,3	6,6	39,1
Informazioa eta komunikazioak	7,6	2,1	6,2
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-3,6	-0,6	-1,9
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	13,6	3,3	12,0
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	14,8	1,4	14,1
Bizkaia	17,2	5,1	15,6
Gipuzkoa	13,0	5,3	11,7
EMPLEGUA	-0,2	-0,2	0,5

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2022ko Irailaren 14a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen kointurako indizea

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian % 17,2ko urte arteko igoera izan da salmenten indizean, Araban % 14,8koa eta, azkenik, Gipuzkoan % 13,0koa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Gipuzkoak hiruhilekoen arteko % 5,3ko hazkuntza izan duela ikusten da, Bizkaia % 5,1koa eta, azkenik, Arabak % 1,4koa.

Euskal AEn zerbitzu horietan lanean ari diren langileen indizeak behera egin du % 0,2 2022ko bigarren hiruhilekoan, urte arteko terminoetan eta hiruhilekoen artekoan.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik, egoerak ezohikoak izan badira ere. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea % **93,8ko babesarekin** kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62